

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Zalduondoko onura publikoko mendian dagoen egurrerako baso aprobetxamendua besterentzeko prozedura irekia

1. Erakunde esleitzailerak:

a) Erakundea: Zalduondoko Udala.

b) Espediente zenbakia: 732/19

2. Kontratuaren xedea:

a) Xedearen azalpena: Baso aprobetxamendua, zuhaitz lote honen baso aprobetxamendurako:

1. lotea. Zalduondoko Udalaren "Monte Alto" 732 OPko mendian, aprobetxamendua "arriku eta mentura" printzipiopean, baso soilketa bidez, 95 itsas pinu (*Pinus pinaster*), mozteko neurketaren bolumena 175,58 m³ delarik, azal eta guzti; eta, aprobetxamendua "azken likidazioaren edo emaitzen arabera", zuzendutako mozketa bidez, 1.578 ametz (*Quercus pyrenaica*), 671,53 estereoko bolumenarekin, eta 10 pago (*Fagus sylvatica*), 3,78 estereoko bolumenarekin.

c) Gauzatzeko epea: 20 hilabete emate akta izenpetzen denetik. Mozketa bakarrik neguan egingo da, abendutik otsailera.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleipenerako irizpidea: preziorik altuena eta gorantz, oinarrizko tasazioa oinarri hartuta.

4. Litzitazioaren oinarrizko prezioa:

7.968,61 euro (BEZa aparte).

Kontuan hartuta itsas pinuaren kasuan (*Pinus pinaster*) azken prezioa "arriku eta mentura" printzipioaren arabera zehaztuko dela, aprobetxamenduaren objektu diren materialei dagokienez, eta ametzaren (*Quercus pyrenaica*) eta pagoaren (*Fagus sylvatica*) kasuan "azken likidazioaren" arabera zehaztuko dela, pilatutako enborkiei dagokienez, honako prezio hauek izango dira litzitazioaren oinarri:

– 1 LOTEA:

ESPEZIEA	GAUZA JAKINA	ENBORKI KOPURUA	KUBIKAZIOA	UNIT.	UNITATEKO PREZIOA €/ UN	GUZTIRA (€)
<i>Quercus pyrenaica</i>	Azken likidazioan	1.578	671,53	Gutxi gorabeherako estereok	4 €/estereo	2.686,10
<i>Fagus sylvatica</i>	Azken likidazioan	10	3,78	Gutxi gorabeherako estereok	4 €/estereo	15,11
<i>Pinus pinaster</i>	arriku eta mentura	95	175,58	benetako m ³ ag	30 €/ m ³	5.267,40
GUZTIRA		1.683	289,74			7.968,61

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: eskainitako azken prezioaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

<http://www.contratacion.euskadi.eus/>

Kontratuaren administrazio alderdiei buruzko argibide eskaerak:

Zalduondoko Udala (Arbin auzoa 3, 01208, Zalduondo). Telefonoa: 945 314534;

e-maila: azalduondo@ayto.araba.eus

Kontratuaren alderdi teknikoei buruzko argibide eskaerak:

Mendi Zerbitzua.

Probintzia plaza 4, 1. solairua, 01001, Gasteiz. Telefonoa: 945 181818

7. Kontratistaren berariazko betekizunak:

a) Sailkapena (taldeak, azpitaldeak eta kategoriak): ez da eskatzen.

b) Ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa: ikusi administrazio klausula berezien agiriko 4 eta 7 puntuak.

8. Eskaintzak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko epemuga: 15 egun iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Baldin eskaintzak aurkezteko azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunaren 14:30era arte luzatuko da epea.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikus administrazio klausula berezien agiriko 5. puntua.

c) Aurkezteko lekua:

Erakundea: Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikorako plataforma <http://www.contratacion.euskadi.eus>

SPKLaren 15. XGan adierazitako kasuetan, Zalduondoko Udalean (Arbin auzoa 3, 01208 Zalduondo, Araba), jendeaurreko ordutegian (9:00-14:00), edo postaz.

d) Behin eskaintza aurkeztuta, oso zergati arrazoituagatik baino ezin izango du baztertu eskaintzaileak.

e) Aldaerak onartzea: ez.

9. Eskaintzak irekitzea:

A gutun azala ekitaldi publikoan irekiko da, hamar eta erdietan, Zalduondoko Udaletxean (Arbin auzoa 3, 01208, Zalduondo, Araba), eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo sei-garren egun baliodunean. Kontratazio Mahaiak aurretik B gutun azalaren edukia aztertuko du, pribatuan, eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako aitorten arduratsuak kalifikatuko ditu.

10. Beste argibide batzuk: ikus administrazio klausulen agiria.

11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Zalduondo, 2019ko uztailaren 17a

Alkate-lehendakaria

GUSTAVO FERNANDO FERNÁNDEZ VILLATE